

ERABAKIA, GETXO RUGBY TALDEA KLUBAK EUSKADIKO ERRUGBI FEDERAKUNDEAREN KIROL DIZIPLINA BATZORDEAK 2016KO APIRILAREN 6AN HARTUTAKO ERABAKIAREN KONTRA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA EZESTEN DUENA. ERREKURTSOA AURKEZTU ZITZAION ERABAKIAREN BIDEZ, BI PARTIDA OFIZIALERAKO ETETEKO ZIGORRA EZARRI ZITZAION KLUB ERREKURTSO-EGILEAREN ENTRENATZAILEARI, [REDACTED] JAUNARI.

---

Espediente-zenbakia: 8-1/2016

### AURREKARIAK

**Lehena.**- 2016ko apirilaren 20an, [REDACTED] jaunak, Getxo Rugby Taldeko presidentea, errekurtsoa aurkeztu zuen Euskadiko Errugbi Federakundearen Kirol Diziplina Batzordeak (aurrerantzean EEFDB) 2016ko apirilaren 6an hartutako erabakiaren kontra. Erabaki horren bidez, bi partida ofizialerako eteteko zigorra ezarri zitzaion Getxo Rugby Taldea klubaren entrenatzaileari, [REDACTED] jaunari, 1709687 lizentzia zenbakidunari, hutsegite arin bat egin izanagatik (aurrerantzean PLA esango diogun Partiden eta Lehiaketen Araudiaren 72. artikulua, b letra). Aipatu dugun erabaki horretan adierazi denez, zigorra betetzeko, kontuan hartu beharko da PLAREN 65. eta 66. artikuluetan ezarritakoa.

Era berean, kluba ohartarazi da (PLAREN 82. art.) eta 100 euroko zigorra ezarri zaio (PLAREN 73. art.).

**Bigarrena.**- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (aurrerantzean KJEB) errekurtsu hau izapidetzea eta Euskadiko Errugbi Federakundeari espedientea eskatzea erabaki zuen. Era berean, alegazio egokiak egiteko epea eman zion eta KJEBk 2016ko maiatzaren 9an aurkeztu zituen.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehena**- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtsio hau aztertzeko eskumena, hori xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, 138.a) artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3.a) artikuluan.

**Bigarrena**- KJEBk Getxo Rugby Taldea klubaren entrenatzailea zigortzea erabaki zuen, jokozainak partidaren aktan adierazitakoaren arabera erabaki bat hartu izanagatik garrasi egin ziolako, [REDACTED] jauna kanporatu zuenean. Albo batean geratu zen, aulkitik metro batzuetara.

**Hirugarrena**- Getxo Rugby Taldea klubak honakoa adierazi du:

1.- KJEBk emandako ebazpena legez guztiz baliogabea da, defentsarako eskubide konstituzionala urratzen duelako; izan ere, ez zaio arauzko entzunaldi-izapidea eman eta guztiz baztertu da legeak horretarako ezarritako prozedura. Hain zuzen ere, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 62.1 artikulua aplikatuz, eskubide eta askatasun konstituzionalak urratzen dituzten eta legez ezarritako prozedura kontuan hartu gabe gauzatutako administrazio-ekintzen legezko baliogabetasuna aitortzen du.

Errekurtsio-egileak adierazi duenez, Batzordeak ez du diziplina-ahalmena arautzen duen araudian ezarritako prozedura errespetatuz eman (14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoa, 116. artikulua; 7/1989 Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Kirol Diziplinako Araudia onesten duena, 1., 2. eta 15. artikulua eta II. eta III. kapituluak; Errugbiko Euskal Federakundearen Estatutuak, V. titulua; Euskadiko Errugbi Federakundearen Kirol Diziplinako Araudia, II. titulua, I., II. eta III. kapituluak), *"ez delako espedientea hasi, ez delako agindu eta ez delako arauzko entzunaldi-izapidea eman"*.

Hain zuzen ere, legez baliogabea da audientzia-izapiderik ez dagoenean, babesgabetasuna eragin baldin bada. Babesgabetasun hori

Espainiako Konstituzioaren 24. artikuluan bildutako funtsezko eskubidearen kontra doa, Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren doktrinak eta jurisprudentziak hainbat epaitan ezarri duen legez.

2.- Ebazpena baliogabea dela erabakitzen ez bada, ia ezinezkoa izanik, honako alegazioak egin dira erabaki zigortzailearen inguruan.

Jokozainak egindako aktaren testutik ez da ulertzen errespetu faltarik, manera txarrik edo PLaren 73. artikuluan sailkatutako jokabiderik egon zenik. Argi dago entrenatzaileak manera txarrekin jokatu izan balu edo jokozaina iraindu izan balu, azken horrek aktan batu behar izango zukeela, espresuki aipatuz. Ez bazuen aktan bildu, halakorik egon ez zelako da.

Hain zuzen ere, kanporatutako entrenatzailearen bertsioaren arabera, honako hau esan zuen hitzez hitz: "*baina zutik dago eta baloia dauka*".

Jokozainen aktak eta adierazpenak egiazkoak direla suposatzen denez eta aktan ez denez 73. artikuluan sailkatutako arau-haustek dakartzan jokabiderik antzeman, arau-hausterik egon ez dela pentsatu behar da.

Hori dela eta, jokozainaren akta egiazkotzat jotzen denez eta bertan ez denez errespetu faltarik, manera txarrik edo irainik ageri, ezarritako zigorra baliogabetu behar da, probarik ez dagoelako eta ebazpena ez delako nahikoa arrazoitu; izan ere, frogatu ez diren egitate batzuegatik ezarri da zigorra.

**Laugarrena.**- Aurkaratu den erabakiaren ustezko baliogabetasunari dagokionez, ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak (116. art), urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuak, Kirol Diziplinako Araudia onesten duenak (II. titulua), Euskadiko Errugbi Federakundearen Estatutuek (V. titulua) eta Federakunde horren Kirol Diziplinako Araudiak (19. eta 30. artikulua) diziplinazko bi prozedura daudela diote. ohiko prozedura eta ezohiko prozedura. Ezohiko prozedura lehentasunaren eta sumarietatearen printzipioetan oinarrituta dago eta batez ere jokoaren edo lehiaketaren arauak hausten diren kasuetan aplikatu daitezke.

Zehazki, Kirol Diziplinako Araudiaren 30. artikulua honako hau dio prozedura horren inguruan:

*"1.- Jokozainek, epaileek edo Federakundeak jokoaren eta lehiaketaren arauak betetzen direla kontrolatzeko agindu dien pertsonen hartutako erabakien aurkako erreklamazioak arau-hausleak edo bere klubaren ordezkariak dagokion akta jaso eta berrogeita zortzi orduko epean aurkeztu beharko dira. Nolanahi ere, zein proba egitea nahi duen adierazi beharko du alegazioen idatzian.*

*2.- Diziplina Batzordeak aurkaratzea edo erreklamazioa ebatziko du bost eguneko epean, aurreko epea bukatzen den egunetik kontatzen hasita.*

*Epe hori luzatu egin ahalko da proposatutako eta onartutako proba bost eguneko epean egin ezin bada, proba-proposamen hori jasotzen den egunetik kontatzen hasita. Edonola ere, epea ezingo da hamar egunetik gorakoa izan".*

Ondorioz, diziplinako araudi osoak eta zehazki Federakundearen Diziplinako Araudiak ezohiko prozedura bat aplikatzea aurreikusten dute jokoaren edo lehiaketaren arauak hausten direnerako, hori izanik errekurtsio honen xedea. Bizkortasuna da prozedura horren bereizgarrietako bat, lehiaketa normaltasunez eta eten gabe egiteko. Ohiko prozeduraren epeak eta izapidetza murriztea ahalbidetzen du, Konstituzioaren 24. artikuluan ageri den defentsarako funtsezko eskubidea urratu gabe. Izan ere, audientzia-izapiderako ohiko epea murrizten denean ere, gainerako epeen moduan (EEFDBk berak ebazpena emateko duen epea, esaterako), interesdunei 48 orduko epea ematen zaie alegazioak egiteko.

Legeak diziplina-espedita izapidetzeko ezarritako prozedurari dagokionez, EEFDBk bost eguneko epearen baitan eman zuen ebazpena (2016ko otsailaren 6an), ordezkariak akta jaso (2016ko otsailaren 2an) eta 48 orduko (2016ko otsailaren 4an) kontatzen hasita.

Horrenbestez, azaldutakoa kontuan hartuta, honako hau ondoriozta dezakegu:

1.- Errekurtsioa aurkeztu duen klubak bazekien aktan zer jartzen zuen, klubaren ordezkariak otsailaren 2an (partidaren egunean) sinatu zuela ageri baita espedientean.

2.- Errekurtsioa aurkeztu duen klubak ezagutzen duen diziplinako araudia eta 48 orduko epea baliatu zuen alegazioak egiteko.

3.- KJEBk alegazioen idatzi hori aipatu zuen 2016ko apirilaren 6an hartu zuen erabakian eta beraz, erabakia hartu aurretik bazuen alegazioen berri.

4.- Horrenbestez, audientzia-izapidea eman zen eta alegazioak egin ziren Batzordeak izapidetutako ezohiko diziplina-prozeduraren bidez. Batzordeak epe barruan (5 egun) eman zuen ebazpena eta ezin da argudiatu babesgabetasuna egon denik edo prozedurarik jarraitu ez denik, Euskadiko Errugbi Federakundearen Kirol Diziplinako Araudiaren 30. artikuluan prozedura mota horietarako bildutako izapideak gauzatu direlako.

**Bosgarrena**.- Behin diziplinazko prozeduraren legezkotasuna zehaztuta, errekurtsio-egileak planteatutako bigarren kontua aztertu beharra dago.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, aurkeztutako alegazioetatik haratago, Getxo Rugby Taldeak ez du jokozainen jardueri egozten zaien egiazkotasuna (PLAren 67. art.) zalantzan jartzen duen probarik aurkeztu eta beraz, 2 partidatarako eteteko zigorra (zigorrik txikiena) zuzenbidera egokitzen dela esan daiteke. Zigortutako egintzak arau-haustetzat jo dira, "2. Hutsegite arina - Lehiaketan zuzenean edo zeharka parte hartzen duen pertsona batenganako errespetu falta" kategorian (PLAren 73. art, Araudi bereko 72. artikuluekin lotuta).

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

**ERABAKI DU**

Getxo Rugby Taldeak Euskadiko Errugbi Federakundearen Kirol Diziplina Batzordeak 2016ko apirilaren 6an hartutako erabakiaren kontra aurkeztutako errekurtsua ezestea. Erabaki horren bidez, bi partida ofizialerako eteteko zigorra ezarri zitzaion klub errekurtsu-egilearen entrenatzaileari eta kluba ohartarazi zen eta 100 euroko zehapena ezarri zitzaion.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, erabakiaren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian edo errekurtsu-egileak nahi badu bere helbidearen arabera dagokion epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 22a

JOSE LUIS AGUIRRE ARRATIBEL

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea